

## SALLENT ALDEAN

por Martxin LABAYEN

**J**AINKOARI eskerrak, azkenian iritxi gera Sallentera, erri legor lur erre asko —eremu soil ta arkaitz itsusiak betetsita gero—. Ama ta osaba ondo arkitzen dira —ni berriz naastuta kotxe barruan ainbeste ordu igarota gero.

Sallent erri txikia da —polita, txit zaarra, karrika estuekin.

Sarreran erreka garbia dauka txutxuriekkin. Eliza, tontor batean josita, ikusgarria. Bañan guk Formigalera joan bear degu. Mendia guri deika ari da agure agurgarri bat bezela. Bere pake— ixiltasun bakardadea Sallenteko iskanbilla baño atsegiñagoa zaigu ta ba goaz gora artzai modernoak bezela lau kurpillen gañian.

Laister, gure aurrean agertzen da jauregi apal zoragarri baten antzera, Formigal Hotela. Zenetan aparta kanpotik eta barrundik. Modernoa bañan pollita. Janaria ezin goxoagoa —eresiakin ta guzti, neskameak, jatorrak Azpeiti aldekoak, egoaldeko biotz irazeki maigarri sutsuak.

Ta noski ez degu baztartua utziko Mao zakur aundi zuri bat lapurren zigorra. Onek zerbaitetako balio du, ez gure Orik bezela, elbi atzean ibiltzeko bakarrik.

Bañan laister oera joateko ordua etorri da. Joango gera noski ama ta biyok, illunabar paregabea ikusita gero. Ikusgarria benetan. Zer margo, zer ikuskiñ zer argiak! Danteskoak! Beste munduan ote al gaude? Urrungo tontor zorrotz izugarriak gorriz jantzi dira, odol margozko gorriz! Sutan ez al daude?

Baliteke— zergatik ez?— Pirineo aldean ainbeste gauza arrigarri gertatzen dira —dana dala azkenian oe zuri biguñetan arkitzen gera.


Burura etortzen zait Lizardi aundiak Oeari egin zion olerki barrenkorra.

Goiz goizean, argi gordiñakin, azkar kanpora egunsenti alaiz gozartzera. Ez da gauza makala noski!

Illunabarrean, urre ta gorriak nunai.— Su— inpernuko margoak!

Egunsentian, more, urdiñ ta zillarrak! Zeruko margoak!

Foratata arkaitz aundiak zidar dizdirak botatzen ditu.



Formigal Hotela

Atzean Foratata

Beian, arkaitz bildurgarri, leize beltz illun tartean, itotuta txikituta— parragarria, or dago— asmatu egin bear da— Sallent erria. Poen ipui beltsuentzat antzoki bikaiña olde ta eskutuz betea.

Ezin obeagoa. Aizea freskoa da, bañan osasungarria. An goian, illargin bezela esaten dutenez— gorputza arin ta anima ariñago.

Dena ixilik dago... ez da ezer entzuten ez bada beien zintzarri otsduna. Txoritxoak nun sartu ote dira? Mendian belar gutxi, pago argi ta piñu beltzak ez oso ugariak zoritxarrez. Lur gorri zakarra emen ta an. Bai ta ere burnizko arkaitz ezteratuak.

Ta nunai beti mendi oro altsuak guri zapalduaz zematzalle.

Gañean erortzen zaizkigu! Olakoa da Pirineoa— alde batetik ikusgarri— lilluragarria— bestetik gelgarria. Zer ostetasun arrigarriak! Bizian bezela noski. Adirazi ezin diranak.

Emen ondo gaude, oso ondo. Toki onen narotasunak txoratu gaitu ta nola ez? Narotasuna beti atsegiña da ta berria danean oraindik geiago. Pitxiak antzera.

Bañan joateko garaia iritxi da. Gure aurrean, zer ote, irudimen edo izatasuna? Osaba ba dator auto aldera, Mao zakurrakin.

Mutil gazte bat ematen du. Pariseko «chansonnier» famatua bere sota txuriekin, jende aundi ta xeen Jainko Txikia. Beti irriparez ez kopet illun ainbeste ta ainbeste prantzez petral bezela.

Ama ta biyok prest gaude, pixkabat itun. Zeruba beztutzen asi da. Berriz turmoi burrunbatsua sortuko al da lur guztia gogorki astinduaz? Urrunean, azkeneko elurrak zuriagoak arkitzen dira, biziagoak. Nolakoak izango ote dira mendi guzti oiek elurrakin? Ikusgarriak. Gure Ion Mikel sartu da burnizko mamuan. Ziur gaude. Urte askotako ta milla esker osaba.

Gu ba guaz bañan nere anaia laister etorriko da. Egoaldi ona izan dedilla! Ta orain, nere lan au bukatzeko bersotxo auek dena pixkat apaindu borobiltzeko:

**Zure oporretan, Euskaldun mendigoizaleak**

**Ba dakizute nora joan**

**Formigal Hotelera**

**Txit eder polit atsegiña**

**Bai udaran, bai negun**

**Paradiso zoragarria.**

